

## ESKIA KURDISTANEN:

Igor Urizar durangarrak monitore kurduak gaitu ditu > 7

## ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Aurrera egitea da aukera bakarra

IÑAKI ALTUNA > 11

2013ko maiatzaren 18a | V. urtea • 314. zbk.  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



# DEPORTAZIOA, DESERRIRA BIDAIA

HIRU HAMARKADA DIRA 58 EUSKAL HERRITARREK OZEANO ZEHARKATU ETA ITSASOA KAIOLA BILAKATU ZITZAIELA. ASKOK EZ DUTE ITZULERARIK IZAN, ETA, TXALUPAK URİK GABE HALA MODUZ PAUSATZEN DIREN MODUAN, AHANZTURAREN MAPAN EGOKITZEN JOAN DIRA. > 12 Jon URBE | ARGAZKI PRESS



«Integratu aukeratutako lekuetan egiten zara». Halaxe aitortu digu Antton Olaizolak Cabo Verdetik. Itsasontziak, deportatuen antzera, olatuen joan-etorririk gabe ez dira lasai pausatzen. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

## DEPORTAZIOA

Itzulerarik izan ez duen deserrirako bidaia

 POLITIKA / oihana.llorente@gaur8.info

Itsasoa zeharkatu eta ozeanoaren bestaldean lurreratu zituztela hiru hamarkada igaro dira jada. 58 euskal herritarrek egin zuten deserrirako bidaia hura. Askok ez dute itzulerarik izan. Epairik gabe, sorterrira bueltatu ezinda, ahanzturaren mapan betetzen ari dira euren «zigorra».

**O**latuak behatu eta hesiak ikusten dituzten euskal herritarrek badira. Ez daude gure artean. Urruti daude. Aspalditik, sorterritik, urrunegi. Itsasoa kaiola bilakatu zitzaizen orain

dela hiru hamarkada. Urteen eta olatuen joan-etorriek, gainera, ahanzturaren mapan galarazi ditu.

GAUR8k, gaurkoz bederen, aberrira itzularazi nahi izan ditu, deportazioa, berriz ere, albeste bilakatuz eta deportatuak geraturaz.

Dispersioaren katebegi urrunena omen da deportazioa. Hala diote gertutik ezagutzen dutenek. Dispersioa bera baino aitzinakoa da, ordea, 1984. urtaririlaren 10ean abiatu baitzen oraindik idazten bukatu ez den historiako pasarte hau.

Gauerdia zen Ipar Euskal Herrian, eta, François Mitterranden agindupean, Aire eta Muge-tako Poliziak bortizki atxilotu zituen bertan errefuxiatutako hamasei euskal herritar. Haietako sei hegazkin batean sartu eta Guadalupe uharteko Pointe-à-Pitre hirian lurreratu zituzten. Deportazioaren hasiera zen. Babes juridikorik gabeko zigor luzeenaren lehen pasarte.

Jose Antonio Mujika, Jose Maria Larretxea, Jose Luis Ansola *Peio el Viejo*, Jose Miguel Arrugaeta, Karlos Ibaruren *Nervios*, eta Josu Abrisketa *Txutxo* izan ziren Ozeano Barearen erdian lurreratutakoak. Guadalupetik Panamarako bidea egin zuten

gerora, eta, ondoren, Kubako Gobernuarekin hainbat gestio egin ostean, Habanara heldu ziren. Kubako Gobernuko gonbidatu gisa hartu zituzten bertan.

Deportatuen zerrenda lazgarria estreinatu besterik ez zuten egin sei euskal herritar haiek. Hurrengo hamabi hilabeteetan 28 euskal herritar deportatuko zituzten, eta, guztira, 58 izan ziren Amerika eta Afrikako kontinenteetan barrena bizitzera kondenatutako euskal herritarrak.

«Herri minez, familia minez eta bereziki herri gosez bizi dute deportazioa euskal herritarrek». Joseba Agudo abokatuaren hitzak dira horiek. Deportatu eta hainbat iheslari politikoren abokatua izan da bederatzirte, eta, hala, mundua zeharkatu du hainbatetan, urtean astebate, bederen, euren ondoan emateko.

Deportazioa ez zen, orduan ere, prozedura berria. Estatu frantsesak bere kolonia izandako herriekin, gatazka uneetan, his-

## 58 EUSKAL HERRITAR DEPORTATU ZITUZTEN 80KO HAMARKADAN

torikoki erabili duen errepresio mekanismoa da deportazioa. 1984. urtean, baina, Gobernu espainolarekin hitzartuta eta honen onespenerarekin abiatu zuen euskal errefuxiatuen aurkako deportazio kanpaina.

«Jasangaitzak diren bizi baldintzen bidez, euskal militantearen damua ahalbidetuko duen suntsiketa fisiko edota psikologikoa bilatzen du deportazioak». Argi bezain garbi mintzatu zen Bixen Mujika, 1989an Juan Ramon Aranburu bikotekidea Cabo Verden galdu ondoren.

Jomugan jo zuen. Rafael Verak, GALen garaian Espainiako Seguratasunerako estatu idazkaria izanak, hala aitortu zuen-eta Estatu espainoleko parlamentuan bertan. ETAko kideak leku xarmagarrietara bidaltzearekin asaldatuta zebilen Alianza Popular alderdiko parlamentariari, astebeterako ederrak ziren paraje haiek, denborarekin zigor galanta bilakatzeko zion-eta.

### «MUNDUKO IPURTZULORA» BIDEAN

Deportazioa benetan zer den ulertzeko protagonisten hainbat esaldi gogoratu beharra dagoela uste du Agudok. Endika Iztueta eta Tomas Linaza Cabo Verdera iritsi zireneko elkarrizketa ekarri du gogora: «munduko ipurtzulora» ekarri gaituztela esan omen zioten elkarrizketari. Ez da harritzekoa. Bizkaia atzean utzi eta Lapurdin errefuxiatu ondoren, hegazkin batean sartu eta Ozeano Atlantikoan kokatutako uhartedi batean bukatu zuten biek.

Sorteritik aldendu zituen hegazkina lurreratu orduko Cabo Verdeko pentsioren bat, Panamako Armadaren kasernaren bat edota polizia inguratutako etxebizitzaren bat izan ziren deportatuen lehen bizitokiak. 1995. urtera arte diru laguntzen bat jaso arren, bat-batean etendako bizitza berreskuratzeko grinaz, ogibide bat eskuratu eta milaka kilometrotara utzitako familia biltzen ahalegindu ziren. Hura izan zen deportatu askoren nahia. «Hirugarren Mundua» deituriko herrialdeetan, baina, lanerako aukerak urriak ziren.

Arazo ekonomikoak, edota, atzerrian familia giroan bizitze-



### Tokialdatze ugari izan ziren

1984. urteko urtarrilaren 10ean hasi eta 1989ko martxoa arte 58 euskal herritar deportatu zituzten munduan barrena. Mapan deportatuek izandako lehen helmuga jasotzen da. Askok, baina, joan-etorri ugari jasan dituzte.

## GAUR EGUN DEPORTATUTA DAUDEN EUSKAL HERRITARRAK

**KUBA**  
Euskal Herritik deportatu gisa eraman bazituzten ere, Kuban gobernuaren gonbidatu gisa hartu zituzten.

- Josu Abrisketa, «Txutxo»
- Jose Anjel Urtiaga
- Jose Miguel Arrugaeta
- Iñaki Etxarte
- Iñaki Rodriguez

### VENEZUELA

- Miren Artola Etxebarria
- Juan Jose Aristizabal
- Asun Arana
- Arturo Cubillas
- Koldo Zubimendi
- Juan Carlos Arriaran, «Sally»
- Kepa Viles

Venezuelan deportatuta zeudela, Jesus Ricardo Urteaga, Eugenio Barrutiabengoa eta Miguel Anjel Aldanaren aurkako estradizio eskaera egin zuen Estatu espainolak 2002an. Geroztik bilaketa eta atxilotze agindupean daude.

### CABO VERDE

- Antton Olaizola
- Felix Manzanos
- Emilio Martinez de Marigorta
- Tomas Linaza

### PANAMA

- Julian Tena

### SAO TOME

- Alfonso Etxegarai



ko baldintza eskasiak medio, egunerokotasunean bakardade-ari aurre egin behar izan zioten deportatu gehienek. Gogorra izan zen askorentzat derrigor-tutako ezlekuan bakarrik bizi beharra. Herritik aldentzen zitu-zen kilometroak biderkatu balira bezala, urrunago sentitu ziren. Antton Olaizolarentzat, adibidez, «kolpe latza» izan zen familia Cabo Verdera eramate-ko ahaleginean porrot egin izana. Hala onartu dio GAUR8ri, eta, bizitzak emandako bigar-reen zartako hori gainditzea «nekeza» izan zela aitortu du.

Milaka kilometrora kokatua dagoen herrialde batean bizi-tzeak ezinezko bilakatzen du deportatuek eta euren senideek nahi eta behar dituzten bisitak egin ahal izatea. Nahitaez he-gazkinez egin beharreko bi-daiak garesti eta luzeegiak dira astebururo, hilero, edota, akaso, urtero ere egin ahal izateko. 2005. urtera arte, 17 urteko epe-an, Cabo Verde eta Euskal Her-ria arteko zeru zatia 55 aldiz zeharkatu zuen Maite Roblese-ek. Azken joan-etorrian, Angel Lete senarra zenaren gorpua aberri-ratu zuen.

Nazioarteko telefono deiak ga-restiak eta posta-trukea nahi baino motelagoa izanik, depor-tatuak sorterrira lotzen dituen zilbor-hestea eten egin daiteke azkenerako. Euskal Herritik jaso-zen duten elkartasuna, gainera, nahi eta behar dutena baino urriagoa izan ohi da. Tamalez, denbora pasa ahala, elkartasuna oroitzen den bat besterik ez dela diotenak ere badira.

Egokitutako herrialde arrotze-an denbora tarte bat bakarrik emango zutela uste zuten depor-tatu gehienek hasieran. Erlojuar-en orratzak etenik gabe aurrera zihoaizen heinean, baina, behar-tutako bizitokia hala moduz onartu eta bertan integratzen

saiatu ziren. Integratu, ordea, aukeratutako lekuetan bakarrik integratu zaitezkeela diote. Depor-tatuen testigantzek esaera baiez-tatu, eta, itsasontziak itsaso gabe pausatzen diren modu be-rean, egoera berrira moldatzen joan ziren. Egokitzen.

Afrikan lurreratu zirenek hiz-kuntzaren mugarekin egin zu-ten topo. Portugesa, edo, lekuan lekuko kreolera ikasi, eta gure begietara oso bestelakoa den kultura batean murgildu behar izan zuten.

Iztuetak eta Linazak, adibidez, Cabo Verden eskuratu zuten eri-zain titulua eta urte mordoa eman dituzte bertako erietxee-tan lanean. Cabo Verden ere, An-

**1989ko martxoan Aljeriara bidean jarri zuten Patxi Hernandezek itxi zuen euskal deportatuen zerrenda. 58 gizon-emakumeren joan-etorriek bost urte pasatxotan idatzitako zerrenda**

**«Herri minez, familia minez eta bereziki herri gosez bizi dute deportazioa euskal herritarrek. Ikuspegi juridikotik, gainera, hutsune juridiko erraldoia da deportazioa»**

gel Letek Filosofia eta Historia klaseak ematen zituen bertako lizeo batean, eta, hil ondoren, haren izena jarri zioten lizeoko liburutegiari. Egun Venezuelan gobernu postuetan lanean ari diren deportatuak ere badira.

Agudoren langintza deporta-tuei aholkularitza juridikoa eskaintzea zen arren, deportazioa «hutsune juridiko erraldoia» de-la nabarmendu digu.

Parisek erabakitako lehen des-tinoa, askotan, ez da deporta-tuen azken helmuga izan. Estatu frantsesetik Aljeriara joandako askok Cabo Verden amaitu dute, eta, Sao Tomen aurkitzen den Al-fontso Etxegaraik, adibidez, Ekuadorren abiatu zuen deserri-rako bidaia. Lekualdatze horiek, deportazioak berezkoa duen ba-besgabetasun juridikoa are gehiago korapilatu duela uste du abokatuak; «era honetako egoe-retan, noren aurrean tartekatzen duzu helegite bat? Nori errekla-matzen diozu?», galdetu du.

2000. urtean hasita bederatz-i urtez aritu zen Agudo deporta-tuen abokatu lanetan. Lana bu-katu eta berehala atxilotu zu-ten. «ETA eta bere atzerriko kideen arteko bitartekaria» iza-tea egotzita. Bi urte pasatxo eman zituen kartzelan, eta, on-doren, frogu faltagatik, absolbitu egin zuten. Auzitegi Nazional es-painolean izandako epaiketan deportatuen egoera salatzen aha-legindu zen Javier Gomez Ber-mudez epailearen aitzinean. Honek entzun nahi ez, eta bitan eten zuen Agudo, deportazioa zer zen denek zekitelara esanez. Agudok ez du uste hala denik eta Estatu espainoleko egungo agin-tariei deportazioa zer den defini-tzeko exijitu die. «Zergatik eman zen deportazioa? Nola izan ziren negoziaketak? Espainiak ala Frantziak erabaki ote zituen hel-muga izango ziren lekuak? Zein 'zigor' betetzen ari dira deporta-tuak? Noiz izan ziren kondenat-uak? Noiz epaituak? Nork agin-du ditu beraien bizi baldintzak?». Hori da, Agudoren aburuz, 30 ur-teren buruan erantzunik aurkitu ez duten galdera zerrenda amaigabea.

Panama, Venezuela, Domini-kar Errepublikak, Cabo Verde,

Ekuador, Aljeria, Gabon, Sao Tome eta Togo izan dira euskal deportatuak hartu dituzten herriak. "Hirugarren Mundua" deitutakoaren parte diren herrialdeok deportatuen truke eskuratutako etekina da deportazioaren sekreturik handiena. Baina tartean negoziaketa ekonomikoak egon zirela agerikoa da. Horren froga argiena Joseba Agudo abokatuak Maria Auxiliadora Monagas Venezuelako Gobernua CIDH Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrean zuen goi karguarekin sinatutako adiskidetasunezko akordioa da. Sebas Etxaniz eta Bittor Galarza euskal herritarrak Venezuelatik kanporatu ondoren irekitako prozedura judizialaren baitan lortu zen akordioa, eta, atzera bota arren, dokumentu ofizial batean iltzatuta gelditu da deportazioaren onarpen handiena den paragrafoa: «80ko hamarkadaz geroztik, Venezuela eta Espainiako estatuen arteko akordioa medio, babestu politiko gisa dauden euskal herritarrak badaudela onartzen du Venezuelako Estatuak. Euskal herritar hauek Frantzia, Aljeria eta Panamatik etorritakoak dira, tartean egondako estatuek hala negoziatuta». Horixe da akordioan jasotako baieztapena, eta, oraindik ere, [www.cidh.org](http://www.cidh.org) webgunean aurki daiteke.

#### DEPORTAZIOAREN AMAIERA BIDEAK

1989. urteko martxoan Aljeriara bidean jarri zuten Patxi Hernandezek itxi zuen euskal deportatuen zerrenda. Bost urte pasatxotan, 58 gizon-emakumeren joan-etorriek idatzitako zerrenda. Zerrenda itxi arren, historia-ko pasarte honek ez du oraindik amaiera ezagutu.

Deportazioaren putzuan erori eta ia hiru hamarkadaren buruan handik irten ezinean dauden hamahiru euskal herritar daude, oraindik ere, munduan barreiatuta. Zazpiak Venezuela dute bizitoki, lauk Cabo Verde eta bana daude Panaman eta Sao Tomen. Kuban ere badira hainbat euskal herritar, baina Euskal Herritik deportatu gisa aterarazi zituzten arren, nekez esan daiteke egun deportatuak direnik.



Estradizio edo kanporaketa prozesuek behartuta heldu ziren batzuk. Eta badira deportazioaren kasa hautsi dutenak ere. Batzuk Kubara joan ziren ihesi, eta, beste batzuk, Euskal Herrira, aberrira, itzuli ziren. Entzutetsua izan zen 1996an Baionako katedralean deportatuek eginiko itxialdia. Hamar izan ziren, orduan, bueltan etorritako deportatuak. Ondoren etorritakoak ere badira, baita klandestinitatean ETaren egituretan aritu direnak ere. Deserria atzean utzita, gure artean heriotza aurkitu zuten Jose Miguel Bustinza eta Patxi Rementeria, adibidez. Lehena 1997an Bilbon zendu zen Guardia Zibilarekin izandako tiroketa ba-

tean, eta, Rementeria, 2000. urtean, Boluetan, beste hiru ETako militantereekin batera, lehergailu batek eztanda egin ostean.

Hiru hamarkada betetze arren lehen deportatua hegazkinera igo zenetik. Dispersioaren katebegi urrunenera eraman, eta, salaketaren oihartzuna isildu zen neurrian, ahantzuraren mapan galtzen joan dira. Deportatuak dira ahaztuetan ahaztuenak. Deportazioa ezagutzen ez duten belaunaldiak erditu ditu jada Euskal Herririak. Belaunaldi gazteenek ez dute deportazioaren hasiera ezagutu, baina, tamalez, badira jada deportazioaren amaiera ezagutuko ez dutenak ere. Deserrian hildako deportatuak.

**Gogorra izan zen askorentzat derrigortutako ezlekuan bakarrik bizi beharra. Herritik aldentzen zituzten kilometroak biderkatu balira moduan, urrunago sentitu ziren**

**Euskal Herritik jasotzen duten elkartasuna nahi eta behar dutena baino urriagoa izan ohi da. Denbora pasa ahala, tamalez, oroitzapen bat besterik ez dela diotenak ere badira**

## ERRAUTSAK, ETXERA BUELTATZEKO ZAIN

«Ez naiz Euskal Herrira itzuliko azken errefuxiatua itzultzen ez den bitartean, ezta hilda banago ere». Luis Zuloagaren hitzak dira horiek. 1994. urtean hil zen Venezuelen. Haren errautsak bertan dira, kutxa batean, Euskal Herrira noiz etorriko zain.

Ez da deserrian hildako deportatu bakarra. 1987ko martxoan Txomin Iturbe arrasatearra Aljerian hil zen. Cabo Verde hartu zituen, aldiz, Juan Ramon Aranburu, Angel Lete eta Endika Iztuetaren azken hatsak. Javier Alberdik Togon aurkitu zuen heriotza. Juan Migel Bardesik, Zuloagak bezala, Venezuelen, eta, Jose Maria Larretxeak eta Luziano Izagirrek, Kuban.


**A**lfonso Etxegarai «bizirauten» aurkitu dugu Sao Tomen. Ia hiru hamarkada daramatza Gineako golkoan «bizitoki desatsegina den larre busti» honetan bizirauten ikasten.

Indarrez atera zuten bere neskalagun nekaezina den Kristiane Etxaluzekin Baionan partekatzen zuen etxe girotik. 1985eko uztailearen 12a zen, eta, oraindik, luze joan diren ia hogeita hamar urte geroago, ez du etxeko ataria berriz zeharkatu. Hilabete eman zuen Parisko hotel batean preso, gau eta egun polizia frantsesek zainduta. Haren geroa noiz idatziko zain. Abuztuaren 12an hegazkin batean sartu eta Ekuador ipini zioten destino. Ez zen lehen deportatua izan, eta, hortaz, aukera hori kontuan izana zuen; «militante zarenean dena espero behar duzu, izena duen oro eta baita hitzez azaldu ezin daitekeena ere... Denerako, baina, era berean, ezertarako ez gara prestatzen», onartu du.

Zerutik Euskal Herria txikitzen ikusten zuen bitartean, «existitzen ez den herri bateko biztanlea izatearen zama» sentitu zuela gogoratzen du. «Nire arbasoengandik hurbilago sentitu nintzen, beste garai batzuetako gudariengandik eta nire neskalagunarengandik gertuago; era berean, baina, gudako bahitu ere sentitu nintzen», idatzi digu Sao Tometik.

Quito izan zuen bizileku garai batez. Urtebete eskas eman zuen Ekuadorko hiriburuan eta urte «triste» izan zela argi du. «Infernuko itxitura» hartan sufritutako guztia ez du azkar ahantziko, are gutxiago, 1986ko urtarrilaren 8an Polizia espainolak torturatu zueneko.

Ekuadorko poliziez inguraturta bizi zen Etxegarai, Anjel Aldana deportatuarekin batera. Zaintzaileak, baina, babesle ordez, euren bahiketan lagun izan ziren. Operazio berezietarako Ekuadorko indar polizialek kideek bahitu eta polizia espainolen esku utzi zituzten, hitzez azaltzeko gai ez den basakeria biziari.



Sao Tomen ez dira lente progresiboak existitzen; hori konpentsatzeko bi betaurreko pare daramatza Alfonsok, bata telebista ikusteko, eta, bestea, irakurtzeko. Kristianek utzi digu argazkia, auzi goibel bati umore apur bat jarri asmotan. GAURB

## ALFONSO ETXEGARAI

### SAO TOMEN DEPORTATUA

## «Denbora kontatzeari utzi diot, bai behintzat kontatzen den moduan»

Sufritutako torturak gogoan sakon iltzatuta eta edozein unetan desagerraraziko zituzten izuarekin bizi zituzten ondorengo egun eta hilabeteak. «Ez zen erraza horrela bizitzea, tentsio handiko egoera zen. Euskal Herriarekin harremanetan jartzeko trikimailuak amesten ematen genituen egunak. Pentsa, Txomin Ziluaga eta Jon Idigorasek Euskal Herriatik ekarritako esku-pilotak ere iritsi zitzaizkigun!», dio.

Egoera jasanezinean ere, euren barruan ilusioa piztu eta ekiteko gogoia berreskuratzeko gai izan ziren. «Enbaxada desberdinetara gutunak igorri nituen, *Radio Moscu* bertara ere mezua bidaltzea lortu nuen eta Cabo Verden zegoen burkide batek entzun egin zuen... Itzal handiko jendea ezagutu nuen eta

nire neskalagunak maitasunak duen indarra erakutsi zidan. Horriek dira garai hartatik libratu ditudan oroitzenak, gainontzekoak ere ahantzi ezin ditudan arren», azaldu digu.

Etxegaraiaren deserriarako bidaia hasi besterik ez zen egin, 1986ko abuztuaren 12an Quito atzean utzi eta Sao Tomera eramane zuten-eta. Ginea Bissauko aireportuan egon arte ez zuen bere helmugaren berri izan. Sao Tome, baina, ez zitzaion arrotza egin; «Angolako gudan, Sao Tome Hegoafrikako armada arrazistaren aurka aritzeko tropa internazionalisten zubi gisa aritu zela banekien, eta, hortaz, herrialde lagun batera nindoala pentsatu nuen». Hala uste zuen.

Egun hartatik bere-berea duen Plentziatik 7.000 kilometroro dago. Ez du gogoan noiztik

ez duen jaiotzen ikusi zuen herria zapaldu, «denbora kontatzeari utzi diot, bai behintzat gainontzekoek kontatzen duten moduan». Hala ere, bere bizitzan marka utzi zuen pasarteak ez du ahaztu: «1978a izango zen eta Baionako katedralaren ondoan nengoan ama bisitan etorri zitzaidanean. Aita nirekin harro zegoela eta zaintzeko eskatzen zidala esan zidan amak. Plentzia une horretan bertan atzean utzi nuela esan dezaket».

Deportatu zutenean dagoeneko sendo zituen uste eta ametsak, indartsuago sendotu eta bereek babestuko zuten konfiantzarekin egin zuen Quitora eramane zuten lehen bidaia. 28 urteren buruan, elkartasunaren inguruan galdetu diogu, eta, «gutxi, oso gutxi» iristen dela aitortu digu. «Urteekin oroitza-

pena besterik ez da», dio argi. Elkartasuna baino, gainera, iristen den apurra konpromisoa dela argi du Etxegarai; «neskalagunarena eta burkideena bereziki», gehitu du.

Euskal herritar bakarra da Sao Tomen. Horrela bizirauten ikasi du, «Euskal Herriarekin zeruan zubiak eraikitzen», dio. Bere «larrean» bisitak bakanak omen dira eta muino batean eserita bidetxoetara begira egoten dela esan digu. «Urteik urtera merezi duen sorpresaren batekin topatzen zara beti: nire ilobak hemen ezagutu nituen... Hala ere, benetan bisitatzen nauen pertsona bakarra nire neskalaguna da, bere burua deportatu du berak. Nire gurasoak, dagoeneko ez daude, baina Baionako katedraleko oroitzen hura bihotzean gordetzen dut», kontatu digu.

Jada 55 urte ditu Alfonsok Etxegarai, eta, atzera begira jarriz gero, erbestealdia borroka bide baten antzera ikusten du: «Heriotza eta bizitza bidea, elkartasun eta maitasun ibilbidea, ahaztura eta aldentze bidea». Kontakizunarekin jarraitu du: «Bidea nire burkide Daviden heriotzarekin hasi zen [1977an Lemoizko zentral nuklearrean Guardia Zibilarekin izandako tiroketa baten ondorioz hildako David Alvareren inguruan ari da]. Eta, orain, iloba euskaldun trikitilari eta jator baten harreman atseginarekin jarraitzen du».

Bidea egiten jarraitzeko asmo osoa du Etxegarai eta Euskal Herria itzultzeko itxaropena ere izan baduela onartu digu; «are gehiago, Larrun magalean edota Bermeoko kai muturrean Xixilirekin elkartzeko beharra sentitzen dut. Domin txine, gainera, zain dut!», dio.

Beharra izan ala itxaropena izan, azkenean zerutik Euskal Herriaren bihotz forma ikusiko duen unea «benetako zoriontasun unea» izango dela argi du. «Zoriontasun istant bat izango da bederen, gehiago guda egiten ez diguten ondorio eta herri moduan onartzen gaituzten seinala», dio bere buruz segurua.

**ANTTON OLAIZOLA**

CABO VERDEN DEPORTATUA

«Ohitu arte gaizki egon nintzen,  
noizbait ohitzen bagara behintzat»

**S**oilik 20 urte zituela utzi zuen Zestoa atzean, orain dela 33 urte. Egun itsasoa du hesi Cabo Verden. 1989. urtean iritsi zen Senegalgo itsasertzaren parean kokatuta dagoen uharterdira. Bertan bizi da geroztik, baina ez berak erabakita. Gogoan ondo iltzatua du Cabo Verde zerutik ikusi zuen lehen aldia. «Ez zegoen nire planen artean hemen bukatzea, ez nuen espero», dio une hartan sentituko izu-zirrara gogora ekarriz.

Cabo Verde, baina, bidaia luze baten azken geltokia izan da. Zestoa utzita, Ipar Euskal Herriak hartu zuen errefuxiatu, 1980. urtean. «Bertan ezkondu eta nire lehen alabatxoa izan nuen», kontatu digu. Gatazka politiko-militarra gainditzeko nahi eta beharrak Aljeriara eramane zuten ondoren. 1986. urtea zen eta zestoarrak bi urte eta lau hilabete eman zituen Afrika iparraldeko herrialdean. Aljeriako negoziaketetan akordioa erdietsiko zela guztiz sinetsita zegoen Olaizola. Errealitate gordina ezarri eta negoziaketetan porrotarekin batera idatzitako Olaizolaren patua: Cabo Verde.

«1989ko maiatzaren 9a zen. Hegazkin militar batean sartu eta zortzi orduko bidaia baten ondoren Cabo Verdera heldu ginen hamar euskal herritar. Aurreko deportazioengatik genekien zein itsasotan zegoen herri hau, baina ezer gehiago ez genekien», azaldu digu telefonoaren bestaldetik.

Cabo Verden lurreratu bezain azkar deportatuak banatu, eta, beste hiru lagunekin batera, Santo Antao uhartera eramane zuten Olaizola. Herrialdeko autoritateek ipinitako pentsio txiki batean eman zituzten lehen hilabeteak. «Nik, pertsonalki, oso gaizki pasa nuen -jarraitu digu kontatzen-. Ezin nuen asimilatu, ezin nuen... Aljerian 200.000 biztanle bizi ziren hiri batean nengoen, eta, bat-batean, irlatxo batean nengoen. Ohitu arte gaizki egon nintzen, noizbait ohitzen bagara behintzat».

Bere bizitzaren jabe izan nahian, han eta hemen lantxo-

ak bilatzen eta bertako hizkuntzak diren kreolera eta portugesa ikasten eman zituen lehen hilabeteak. Hautsitako bizitza josteko asmotan Ipar Euskal Herriaren utzitako emazte eta alabatxoa ondoan nahi zituen. Cabo Verden, baina, ez zituzten horretarako baldintza egokiak aurkitu. «Bi bider etorri ziren, baina ez genituen familia moduan, elkarrekin bizitzeko kondizioak aurkitu. Bakoitzak bere bizitza egiteko erabakia hartu eta onartu behar izan genuen orduan. Lagun handiak gara geroztik», kontatu digu.

Kolpe gogorra izan zen hura Olaizolarentzat. «Familia ekaritzeko ahaleginean porrot egin

izan beste zartada bat izan zen. Mundu guztian gertatzen dira banatzeak, baina egoera horretan gertatu izana oso nekeza izan zen niretzat. Bigarrenez aurriera egitea nekezagoa izan zen oraindik», dio momentuko tristura gogoan duela.

Deportazioa hitz gutxitan zerden azaltzeko atakan jarri dugu, baina Olaizolak ez ditu hitzak aurkitzen. «Bizi egin behar da zer den jakiteko, batez ere, zer den sentitzeko. Beste espetxe mota bat da -hasi zaigu deskribatzen-. Galduta sentitzen zara, zeharo galduta; ez duzu non eutsi eta ez duzu etorkizunik ikusten. Bat-batean parametroak, heldulekuak, galdu dituzula

ohartzeko zara. Gizakumeak bizipen sorta bat gara, eta horiek erdi-erditik moztzen dizkizutenean, aita eta ama galduko bazenitua moduan aurkitzen zara. Zilbor-hestea moztzen saiatzen dira eta horrek desoreka sortzen du. Sekulako desoreka. Oso urrun zaude, gainera, garai horretan urrutiago».

Urruntasunak harremanak mantentzea zaildu egiten du, diru kontuek ez dituzte-eta nahi adina bidaia eta dei baimentzen. «Atera kontuak, alabaren gutun bat jasotzeko lau urte itxaron behar izan nituen eta egunkaria hilabete eta erdiko atzerapenarekin jasotzen genuen; denbora luzez ezer jaso

gabe eta hoge ale batera iristen zitzaizkigun», ekarri du gogora.

«Gorputza leku batean eta burua besteetan», hala aurkitzen omen da Olaizola. Urteekin Cabo Verden integratu ote den galdetuz gero, ezetz dio. «Moldatu naiz, baina ez integratu. Integratu aukeratutako herri batean egiten zara», dio zalantza izpirik gabe.

Itsasoz inguratuta daramatzan 24 urte hauetan hiru burkide hiltzen ikusi ditu: Juan Ramon Aranburu, Angel Lete eta Endika Iztueta. Azkar ahantzi-ko ez dituen gertaerak dira horiek, eta Euskal Herriatik heldutako elkartasunaren oihartzun txikiak ez dio gehiegi lagun-tzen; iritsi iristen da, baina, ez nahi eta behar bezainbeste», argitu digu.

Egun kaian egiten du lan, porturatzen diren itsasontziei zerbitzua eskainiz, eta beste hiru semearen aita ere bada. Horieta bi adoptatuak dira. «Umeak zaintzeko gai ez zen familia bateko haurrak dira eta horietako batek ondorio larzarriak ditu. Euskal Herriaren urtebete eman du, zutik jartzen eta hitz batzuk egiten ikasten. Orain hemen dut, baina Euskal Herriara bidaltzeko izapideekin nabil berri, hemen pertsona desgaituek ez dute etorkizunik-eta», kontatu digu.

Teknologia berriek Euskal Herriara apur bat hurbildu dute Olaizola, egunean bertan irakur ditzake bere herriko albisteak titularrak eta adinez aurriera doan aitaren aurpegia ere ikus dezake webcam bidez.

Euskal Herriara bueltatzeko aukeraz galdetu diogu, eta, «hainbat baldintza sentimental betez gero», pentsatu gabe etorriko litzatekeela dio. Hori du amets. Argi du, ordea, herrira bueltatzeko ezin duela bat-bateko erabakia izan: «Ezin ditut urteetan izandako harremanak hautsi. Ez dut berriz burua leku batean eta gorputza besteetan izan nahi. Baldintza horiek bete ezean, heriotza arte egongo naiz hemen». Aukeratzeko aukera eduki dezan, baina, horren alde lan egiteko deia egin du Cabo Verdetik, «hobe goiz berandu baino».



Elegante agertzen zaigu argazki honetan Antton Olaizola (eskuinean). Ondoa Endika Iztueta du, 2008an Cabo Verden hildako deportatua. Lagun handia zuen eta elkarriketatxo honetan tartea eskaini nahi izan dio Anttonek. GAURB